

## **LOMCE EZ! EUSKAL HERRIAN, GURE HEZKUNTZA ERAIKI!**

Euskal Herriko hezkuntza eragile gehienok, ikasle, familia, langile eta beste hainbat elkartek eta erakundek argi adierazi dugu azken hilabete luzeetan Wert hezkuntza ministroak inposatu nahi duen LOMCE hezkuntza erreformarekiko erabateko aurkakotasuna. Zentralizatzailea, adoktrinatzatzailea, uniformatzailea, atzerakoia, segregatzailea, pribatizatzailea eta elitista den lege hau bertan behera uztea exijitzen dugu eta inola ere ez dugu onartzen Euskal Herrian inposa dadin.

Urriaren 12an, beste sindikatuekin eta hezkuntzako erakundeekin batera, Bilboko kaleak bete genituen LOMCEri gure aurkakotasuna adierazteko, hezkuntza sistema propioa aldarrikatzeko eta Euskal Herriko alderdi politikoei eta Nafarroako eta EAeko legebiltzarrei eta gobernuei LOMCEa gure herriko ikastetxeetan inola ere ez dezatela aplikatu, eta horretarako bitarteko guztiak erabili ditzatela, eskatuzeko. Modu berean, hezkuntza eragileok gure konpromisoa berretsi dugu LOMCEri aurre egiteko eta gure herrian aplikatu ez dadin estrategia komunak lantzeko.

Urriaren 24an berriro ere kalean egongo gara elkartzen gaituen jarrera berradieraziz. Elkarteratzeen bidez, gure desadostasuna agertzeaz gain, gure elkartasuna adierazi nahi diegu estatuko beste herrialdeetan LOMCEren kontra mobilizatzen ari diren ikasle, familia, langile eta beste hainbat elkarte eta erakundeei.

Bestalde, hezkuntzako eragile anitz, bakoitza bere ikuspuntutik, eraso hauei guztiei aurre egin eta Euskal Herrian behar eta nahi dugun hezkuntza eraikitzeke pauso berriak emateko gure konpromisoa adierazi nahi dugu.

Honegatik guztiagatik, **dei egiten diegu ikasle, hezkuntzako langile eta gurasoei datorren urriaren 24an ikastetxe bakoitzean jarrera hau adierazteko.**

**Gure aldetik, eguerdiko 12:30etatik aurrera ordezkari sindikalen kontzentrazioa egingo dugu Lakuan.**

**EUSKAL HERRIAN, GURE HEZKUNTZA ERAIKI! LOMCE EZ!**

Euskal Herrian, 2013ko urriaren 18an